

1961

Nobelarientzako oñarri batzuek

J. SAN MARTIN

Aurtengo irallean Urkijo Mintegiak Donostian antolatu zuan literatura solasetarako, nobelari buruz egin nuan lantxoia oñarri arturik, azalpen oiek eman nai nituzke. Euskal literatura indartzeko gauza asko ditugu premiñazkoak, ta oien artetik nobela ez da azkenerrako utzitzekoa. Puntuz-puntu dijoaz solasaldi artan erabillitako gaiak:

1.—Idazleak bere toki berezia arkitu bear du.

Erbesteko literatura ezagutu bearra dute gure idazleak. Ba-dira literatura zaarrak eta literatura gazteak. Gurea nunbait finkatzekotan, azkenengo ontan izan bearko du.

Zaartasun aldetik Espafia ta Prantziakoak ditugu aukerakoenak.

Baña, gurea indartuko bada, gazteak jokatu duten erekin burua bat egitea geiago komeni zaigula nik uste. Gogoan izan gurea erne nairik eta erne eziflik dabillela aspal-diko urteetan. Beraz, gazte bezela jo bearko dugu; utsean gelditzerik

nai ez badugu beintzat. Eta, gazteen artetik Errusiakoa dugu noski eredutzat artzeko bezelakoa. Pushkin eta Gógol-engandik asi eta Turguénev, Dostoyevski, Tolstóy, Chéjov eta Gorki-ra arte.

Baña, oso premiñagarria da gure literatura zaarra ezagutzea. Lendik onerako bideak beti azalduko digute argi apur bat. Atzeak erakusten du aurrea zelan erabilli.

Gaurko eraz idatzi bear litzake; izkuntza biziaren inguruan. Gazte-leraz ere, gaur egunean, ifiork ez bai du idazten Cervantes-en erdera zaarrean; ta guk ere Axular-engandik ikasi genezake, baña gaurko

euskeran idatzi. Axular-ek bere garraikoan egin zuan bezela. Ta, gaurko euskera nola dan, ez dago esan bearrik: erriak aoz-ao darabilena, zerbait apainduta. Baña kontuz ibilli apainkeretan. Juan Ramón Jiménez-ek, au dio:

¡No le toques ya más,
que así es la rosa!

Literatura, jakingo duzuten bezela, mendez-mende aldatuz joaten da, garai bakoitzeko giroari loturik bizi dalako. Giro ori, literaturari, pentsamena kide dalarik, bere denborako konzeptoak jartzen dio; filosofia, politika ta artea dira auen artean zer ikusirik geien dutenak. Musikak ere bai zerbait, baña ez orrenbeste; musika oso astraktoa dalako. Ala ere, badirudi, Verlaine batek bere poesiak doñuz egin zituala. Ori dala ta, areri egin zezakeanik kaltegarriena da, bere lanak beste izkuntza batera aldatzea: itzak aldatuko dituzte, baña ez ordea doñua. Gaurko poesia astrakto askok ere ba dute doñu ori. Baña nobela baterako ez deritxot premiñazkoa. Nobelak beste eska-bide batzuek bete bear ditu.

2.—Bakoitzak bere tokitik lana

Eskolak era askotarikoak dira ta idazle bakoitzak beretzako egokia aukeratu bear du, bere jakintza edo bizitzaren bitartez onduen datorkiona. Aal dala, erabilli bear dituan gaien barnean bizi edo gutxienez

sakon ezagutu. Ortik bakarrik eldu lezake bere gaia menperatzera.

Bi bide ditu idazleak, bere barneko problemak kanporatu edo bere barnetik ikusten duan kanpokaldea adierazi.

Orixe artuko dut ejenplu bat jartzeko. Oso oker ez banago, bere bidean erratatuko idazle bat zan Orixe. Askoren ustez, gauza gaitzak menperatzea da merituzkoa; bereri errez ateratzen zaiena baliozkoa ez balitz bezela. Uste eze, ama batentzat, aur-gintzan geiago kostatutako semeak geiago balio duala. Ori da gutxi gora-bera Orixe-n gertatzen. Poesia mistikurako iturri gardena zeraman bere barnean eta, buru gogorra alakua, beste lan batzueri loturik ibilli zan. Bere lanik onena **Barne-muinetan** zuan, eta bera, gizajua, etzan konturatzen. (Norbaiti esan omen izan zion bere lanik onena **Barne-muinetan** zala ere. Baña neri ta geieneri bestaldera itz egin zigun. Kontrako indarrez ongi ebillena zan eta ez naiz batere arritzen. Baña, **Barne-muinetan** onena zan ustean egon balitz bide ortatik jarraituko zuan, ez izan duarik).

Orrez gañera, bere ametsetako euskera ederrean naro ebillen. Eztabaidetan sartzen zanean beste bizkortasun bat agiri zuan, ta beti izan balitz ori bere ofiarri, **Mireio**, **Aitorkizunak** eta **Euskaldunak** bera ere, duarik gabe, euskaldunagoak izango ziran.

Idazleak, beti, **zelan?**-eri baño

zer?-eri garrantzi geiago ematean du gaurkotasunezko bidea. Jakina, zeri, zelan ongi josi ezkerori litzake onena.

Eunetik larogetamarrek, liburu bat eskuratzen dutenean, jostatze-ko artzen dute; estudiokoetatik aparte. Orregaitik, irakurleak ari bear du; ortarako, zerek, zelanez baño indar geiago izan dedilla; irakurlearentzat aspergarri izango ez bada.

Nobelak, egokitasuna bear du lenbizi. Pio Baroja-k esaten zuan, liburu batean edonolako erak ontzat artzen zituala; gauza bat ez: aspergarrria izatea.

Guk oraindik orrenbeste ere ez degu eskatzen, geienetan, ulertzen dan euskerarekin kontentuz izango gifiake.

3.—Gure nobelari batzuen joerak.

Mende ontako literatura itzetan lander da, eta guztiok ezagutzen dugu, noski, Tirso de Molina-k bere **La prudencia de la mujer**-en euskaldunegaitik esana:

“el hierro es vizcaíno, que os en-
[cargó,
corto en palabras, pero en obras
[largó”.

Eta alde orrek beti piztu izan du nere barnean zenbait itxaropen.

Gaurko era au guretzat egoki da-

tor, baña ideak gure mendi-arte es-tu oietan ez itotzen ikasi bear du-gu: gure pentsamena zabalago, gu-re begiak aruntzago, ta gure gogo-a sakonago. Geurean eta bestenean egon bear gera. Mundu onetan gu bakarrik ez gerala konturaturik. Iparraguiren “eman da zabal zazu”-ri jaramon geiago egifiaz.

Etxeita izan genuan nobelari bi-kain bat. **Josetxu ta Jaioterri mai-tia**, erromantiku azkenaldikoak izan-ik, moteltxoak badira ere, denon ezaugarri izan bear lirake. Bazuan nobelari teknika.

Txomin Aguirre, Pereda-kin kon-paratu izan dute askok, baña bata-gandik bestera amil sakon bat da-go. Alkarren kidea oitureri buruz-ko nobelak egitean bakarrik dute. Gaiak antzerakoak izanarren, erak oso desberdifiak zituzten. Bear ba-da, Agirrek, aren tankera artzea naiko zuan, baña bere landertasu-na ezin izan zuan menperatu. Es-kerrak laburtasun orri, bere lanak askoz ere geiago balio dute. Ta, bere itz jarioan orren ugaria izat-en alegindu ez balitz, oraindik o-bea-go izango zan seguru asko.

Kresala neurritz dabil; euskeraz idatzi diran nobelarik onenetakoa dugu. Nobelaren teknika aldetik esan nai nuke.

Garoa aspergarri xamar egiten da. Literaturaz aberatsagoa ta esti-lu bikaiña badu ere, apaingura la-rregi du ta pertsonaje paltsuak ga-

fiera .Nobelaren izan bearra ezta literaturazko arte utsa.

Ortan, gaurko idazleak obeki dijoaz, baña oraindik iñork ez dio Agirre-ri urrik ematen izkuntz aberatzez eta estiluz.

Etxaide-k bultzatu du azkenaldi ontan gure nobela. Onak ekarri ditu era obeak, gaurkoagoak. Benetako nobelista da. Estilu bizia, eraginkorra, bortitza. Tamalgarria bere euskera errikoia ez izatea.

Nobela bezela, **Joanak-Joan**, euskeraz egin diranetatik puntarengoa dugu.

Irazusta eta Barrenso-ro-k nobelarako era bazuten, kemen apurtxo bat ere bai, baña beren prosa motelegia da; ez dute gatzik.

Erkiagak ba du irudimena, oarle bikafia da, baña moteltxo. Gañera, euskera zelan erabilik geiegi larritzen du; adibidez: "pentsatzen edo oldozten" eta antzerakoak maiz erabiltzen ditu, erabagi ziur bat artzen ez dualako. Ta ori oso aspergarria da irakurlearentzat. Bata edo bestea, ta beti ere, orrelako erabagi bat artu bear danean, erriaren alde obe. Nobela erriarentzat da; edo izan bear litzake.

Loidi-k irudimen azkarra du, idazkera samurra ta egokia. Euskera-ren aldetik, nere ustez, gaur dugu-nik onenatarikoa bai noski. Era ori, euskal literatura indartzeko bearbearrezkoa da.

Amabost egun Urgain-en, beste nobela onetako bat dugu. Bear bezelako euskeraz ornitua.

Txillardegi ez dabil zenbaitek uste duen bezin oker. Egia esan, bera bizi eztan problemak artu izan ditu, ta ori oso gaitza da ongi erabiltzeko, baña gutxienez, kezka azaltzen du; era berriak artu ditu, ta ori ere bearrezkoa dugu.

Egilleak igartzeko noski, **Lear-tzak**, Eduardo Mallea-ren **Todo vendor perecera** nobela aipatuko Agata-n tajurak ditu. Mallea-ren nobela ori izkuntza askotara aldatu izan da, ta nik dakidanez beintzat, iñork ez dio aburu txarrik egin.

Gure literatura geixorik dugu ta geixoarentzat aize berriak onak dira. Segitu dedilla Alvarez-ek bide ortatik.

Oiekin euskal nobelari onenak eta geienak aipatu ditudalakoan nago. Norbait utzi badut, barkatu arren.

4.—Aurrerunzko bidea

Nobela bat idaztea bururutzen zaien guztieri ongi legokie Balzac eta Dostoyevski ezagutzea. Oiek dira nobelagintzan maixu. Sakonegiak badira ere, ezta irakasle obrerik.

Baña, ain urruti joateke ere, ba dugu beste maixu bat, etxean bertan Hemingway, Nobel saria jaso

zuan idazle bikaña Euskalerriko seme bategandik ikasi zuan nobelagintzan, berak orrela aitortu zuan: Pio Baroja-gandik. Ta aurrerago aipatu dedan bezela, ez zan gauza aundia Baroja-k liburu bati eskatzen ziona: "aspergarria ez izatea".

Taine-k ziona: egintza ta sortze ekintzetatik sufrituz igarotzen diran erriak omen dituzte ondoren idazle ta artisten jeneraziñoak; heroeen semea egiten omen da artista.

Ta gure erri onek, bere il edo biziko auzian, guztiok bear ditu.

Gogoan artu: Erria idazleakin joango bada, idazleak errira begiratu bear du.

Inguru-minguruak adimenez aztertuz, ta esangurak ongi azalduz. Or dago idazlearen kakoa.

Azalpenak labur, ta euskera samur.

Guzti oien gañetik, **Clown** eztanik ez dedilla atera zirkora.